



E N E K O  
B I D E G A I N

argiak maite ez  
zuen gizona

E  
l  
k  
a  
r  
r  
I  
r  
a  
k  
u  
r  
r  
i  
z

 BOOKTEGI



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

ENEKO BIDEGAIN

argiak maite ez  
zuen gizona

E  
l  
k  
a  
r  
r  
I r a k u r r i z

Bi segundoero klank, klank. Bi segundoero bat erortzen da kutxara; Afrikako termita mota batek arrautza erruten duen bakoitzeko bat. Klank. Bi segundoero euro bateko txanpona. Klank, klank. Minutu baten buruan 25 txanpon metatu dira. Oren batez, 1.500 txanpon. 1.500 euro orduko. Klank, klank. Han nonbait, kutxa bat betetzen ari da, klank, klank.

\*

Egurrez kargatu du eskorga, eta ahal bezala darama, dinbili-danbala, lurrezko xendra meharrari segi, bere oinetako higatu eta galtza zikinekin. Negua dator; Karlosen bigarrena, etxola erdi erori hartan bizitzen hasi zenetik. Oihan zoko batean, hirigunetik ahal bezain bazter, bere burua zokoratu zuen, ingurukoek behin betiko baztertu baino lehen.

Gaitz bitxi batek hartu zion gorputza duela urte eta erdi. Zegoen leku guztietan isiltzen ziren musika kateak, belzten ziren pantailak, itzaltzen ziren bonbillak, gelditzen ziren igogailuak, ixten ziren ate automatikoak, mututzen ziren medikuen aparatuak... Hots, argia joaten zen. Hain zen gaitz misteriotsua non medikuek berek ere ez zezaketen diagnostikorik egin, eta orri batean jarri zioten erabakia: sare elektrikoekiko intolerantzia. Karlosen begietan, alderantzizkoa zen egoera: sare elektrikoak zuen Karlosekiko intolerantzia.

Bizia gero eta jasangaitzagoa zen etxean: bitrozeramikak ez zuen berotzen, irratiak ez zuen berririk kontatzen, kandelen hastapeneko kutsu erromantikoa zama gero eta goibelagoa zen arratsetan... Etxekoak ez ziren ausartzen deus leporatzera –gaizo gizona! Bazuen atsekaberik aski horrela!–, baina gaitz hark seme-alaben eta emaztearen ezinbizia ere eragiten zuten. Argiak itzaltzean sumina piztu zen. Gero eta minago.

Etxean zaila bazen, etxetik kanpora ere ez zen aiseago. Lantokira ezin zen agertu, han zegoenean aire girotuak ez zuelako hozten, ordenagailuak kutxa beltz huts eta hutsal baizik ez zirelako... Saltegietatik uxatu zuten, eta tabernatik, eta museoetatik, eta zinematik, eta... Kutxazain automatikoak ere haizatu zuen: txartela irentsi zion eta billeterik ez zion bota...

Etxera buru-makur itzuli zen batean, zalaparta bat entzun zuen, argia bat-batean joan zenean. Aulki bat erori izan balitz bezala, edo norbaitek bere burua mahai baten kontra jo izan balu bezala. Eta segidan zurrumurru batzuk. Gero, soinuak kanpotik hauteman zituen, eta sukaldeko leihotik ikusi zuen gizon bat biluz gorrian, lorategian lasterka, jantziak beso artean zeramatzala...

Dena ulertu zuen. Emazteak maitalea zuela, eta emazteak maitalea izatea bera.

Edozein etxe edo argindar kabletatik ahal bezain aparteko txoko baten bila hasi zen, orduan, eta hantxe aurkitu zuen etxola abandonatua. Supazterra bazuen behitzat, eta erreka ez sobera urrun. Ingurua hesitu zuen, baratzea landatu eta oilo batzuk hazi.

Goibel heldu da bere eskorga kargatuarekin. Gogorra egin zitzaion aitzineko negua, eta ez daki beste bat jasanen ote duen! Supazterrak larrua berotzen dio, baina bakartasunak bihotza hozten. Eta bakartasuna gogorragoa eta beldurgarriagoa zaio zerua goizik iluntzen eta lurra izozten denean.

Urrats batzuk hauteman ditu franko urrun. Eta ikaratu da. Ez dira orein urratsak, ez basurdearenak... Urrats mantsoak dira, nekatuak, baina nahiko dorpeak ondorioztatzeko bi hanka luzeren azpiko bi oin zabalenak baizik ez daitezkeela izan. Urtebetean belarria zorroztu zaio. Eta badaki ez dela urrats mota hura entzuteko egun eta tenorea.

Etxolan gorde da, eta leiho gibeletik jarri da barrandan, makila eskuan. Etxola xahar horren inguruan eraiki duen bere errepublika –ñimiñoa, baina bere errepublika– arriskuan ikusi du. Ez diezaiola nehork eraman barazkirik, ez arrautzarik, ez oilorik! Ez dezala nehork etxolatik kanpora! Ez dakiola nehor sar etxolan eta nagusi jar!

Azkenean agertu da, bi zuhaitzen artetik, Karlosen mehatxua. Herrestan, zarpail, artilezko txaketa mehetua eta galtza erdi erori, hits eta urratuak soinean, eta bota zulatuak oinetan, hezur eta larru. Hilotz baten gisako begi zuloetatik, ikara begitarteak itzali dizkio begiak. Gutxien nahi zuena zen beste jendeki bat gurutzatzea, eta Karlosen desafio soak lurrera bota du.

Literalki. Alditxartu da. Berak baizik ez daki zer nolako leherraldia hartu duen haraino heltzen, eta noiztik ez duen ahamen bat ere irentsi. Erortzen ikusi duenean, Karlos lasaitu da. Bere errepublika ez dago arriskuan; ez du triste paketa horrek konkistatuko.

Poliki-poliki hurbildu zaio, makila askatu gabe, oraindik ausiki egin lezakeen otso abaildua balitz bezala lurreko gizon hori. Makilaren puntarekin hunkitu dio besoa, bizirik ote dagoen segurtatzeko. Gizona milimetro batzuk mugitu da, eta Karlos txabolara joan da.

Gizonari minutu batzuk kosta zaio begiak berriz zabaltzea. Lanbro ilun batek estaltzen dio bista. Ez daki non dagoen, ez daki zer gertatu zaion. Eta lanbro ilunaren erdian itzal bat, itzal handi bat, bere begietatik metro laurdenera... Soinuen paisaia ere estali du laino beltz horrek. Eta burumuinetik ari zaion ziztu etengabe eta desatsegina baizik ez du aditzen. Pixkanaka-pixkanaka urruneko oihartzun bat ari zaio hurbiltzen... eta gero eta garbiago entzuten du: «Ongi haiz?»...

Eta lanbroa ere haizatzen hasi da. Ikaratu duen gizon hori dauka begien parean, baso bat ur ekarri diola ezpainen parera. Oraingoan begitarte amultsuagoarekin egin dio harrera.

Ilunabarretik biharamun arratsaldera arte egin du lo gizon ezezagunak. Seko. Karlosek bere ohea utzi dio eta bera lurrean egon da etzanda. Ez du lo handirik egin, eta bizkarra gogorturik jaiki da, goizean goizik.

Egun batzuk behar izan dituzte ahoskatu gabeko «egun on» baino zerbait gehiago erraten hasteko. Hastapenean, mesfidantzak mesfidantza, Karlosek artoski zaindu du gizon etorri berria: supazterrean egositako salda beroarekin elikatu du lehen egunetan, arrautza opila

egin dio hirugarrenean... Gizona bere baitarik altxa denean ohetik, Karlosek begi bazterretik barrandatu du... Ez ahal zaio, eskutik jaten eman ondoan eta horri esker indarrak berreskuratu ondoan, jazarriko, lekua hartzeko!

Zazpigarren egunean egin dio galdera Karlosek:

–Nola duk izena?

Gizonak buru-makur erantzun dio, Karlosen beldur balitz bezala. Hain segur galderaren intonazioa bera oldarkorra iruditu zaio...

–Nik?... Karlos –ihardetsi dio, ia ez entzuteko gisan.

–Karlos? Nik bezala, orduan! –Eta esku eman dio, irri zabala ahoan– Beraz, hi izanen haiz Karlos B eta ni Karlos A.

Egun horretan ez dute solas gehiagorik trukatu. Karlos B baratzean laguntzen hasi zaio Karlos A-ri. Afaria prestatu du Karlos A-k, isilik afaldu dute eta isilik egon dira afalondoan. Karlos zaborren artean aurkitu zuen liburu lodi bat irakurtzen hasi da, supazterraren argira. Karlos B ohean etzan da, logaletua delakoan. Begiak itxi ditu, ez dakielako besterik zer egin. Begiak itxi ditu baina burumuina ez zaio isildu. Garuna ez da gelditzen ipuinak kontatzetik: iraganeko mamuak eta etorkizuneko ametsak. Pentsamendu ederretan balakatu nahi luke, baina irudikatutako egoera eztiak lokarrarazteko orde, iratzarririk uzten dute. Maite datorkio gogora, dibortziatu aitzineko Maite, ohe epela, fereka luze haiek, goizetako ogi txigortua, Haizea eta Ane bikien zalaparta ikastolara joan aitzin... Zenbat eman lezakeen haien artera itzultzeko!

Dena okertu zen, ordea, eta pentsamendu beltzak datozkio loari erasoan, orain. Dibortzioa. Beretzako etxe bat alokatu beharra, eta prezio astronomikoei ezin aurre egin... Lan prekariora, eta, inflazioaren ondorioz, langileak oraino zigortuagoak... Bankuko kontuko zakua gero eta hutsagoa zen eta fakturak gero eta puztuagoak. Eta hala hasi zen faktura batzuk ez ordaintzen.

Kilometro batera dagoen zabortegira joan dira koltxoi zahar baten bila, Karlos A-k uste duelako bere ohea berreskuratzeko tenorea duela, baina krudela iruditzen zaiolako Karlos B lur gogor hartan uztea. Bidean galderak egin dizkio; gehiago jakin nahi luke Karlos B-ri buruz, baina Karlos B-k deus gutxi kontatzen du bere buruaz. Isilik iragaten du egunaren zati handiena. Karlos A nagusi gisa portatzen ari delako? Hark agintzen duelako zer egin eta nola? Karlos B-k bere burua langile zapaldu eta apalduaren lekuan jarri duelako berriz ere, rol hori larruan iltzatuta balu bezala?

Karlos A-k hasierako beldurrak galduak ditu. Ez du mehatxurik ikusten jadanik bere zerbitzarizat daukan gizon ahul horrengan. Lasai ederrean kontatzen dizkio bere zorigaitzak.

Gaitz bitxi hura agertu zitzaionean, ikerketa franko egin zuten, misterio haren jatorria ulertu beharrez. Medikuek erantzunik eman ez ziotenez, beren betiko elektrikariari galdetu zioten, baina hark ere ez zion azalpen arrazionalik ikusten. Exorzista bat ere ekarri zuten etxera,

konbentziturik madarikazio bat baizik ez zitekeela izan. Gorputza deabruak hartua ziola-eta, hura uxatu beharrez aritu ziren... alferrik.

–Baina nik banekian noiz hasi zen hori guztia...

Karlosen ingurukoek, ordea, ez zuten hain argi. Egia erran, ez ziren oroitzen noiztik aitzina gertatu ziren bitxikeria haiek. Ez ziren berehala ohartu argia joatearen arrazoia Karlos bera zela. Uste zuten argindar konpainian zeuden arazok eragin zutela, edo matxura handi bat gertatu zela. Ez zitzaien burutik pasatu –Karlosi ere ez– beste lekuetan ere ez zenik antzeko arazorik gertatzen.

Karlosek atzera begirako kronologia osatu zuen, eta anomaliaren lehen eguna zein izan zen erran zuen etxean. Emaztea ez zegoen konbentzitura, lehenago ere joan izan baitzen argia, eta ez zukeen eskua sutan jarriko Karlosen hipotesiaren alde. Ez zioten kanorerik ikusten.

Karlosek zioen ospitalean gertatu zen argi mozte handi baten eraginez jarri zela hala. Ez zuten argitu zerk eragin zuen argi mozte hura: tximista batek, uhin erradioaktibo batek, eguzki ekaitzak...

–Ohartzen ninduan, bai, emazteak eta hurrek ero bat banintz bezala begiratzen zidatela. Erraten zidatean ergelkeriak baizik ez nituela erraten, egun hartan ospitalean zeuden besteek ez zutela halako arazorik izan... Zer zekitean bada? Joan ote zituan besteengana, galdetzera?

–Eta zu joan zinen?

–Nola jakin nor egon zuan ospitalean egun hartan?

–Eta zer ari zinen ospitalean?

–Ebakuntza txiki bat egin zidatean...

Karlos B-k badaki zer den argia moztea; ez gisa berean, ordea. Argia ez da joaten bera dagoen lekuetan. Argia moztu zioten etxean. Fakturak ez zituelako ordaintzen. Karlos A ez da mintzatu diruaz, baina ez bide du diru arazorik.

–Eta zer lan egiten zenuen?

–Enpresa baten jabea ninduan... nauk...

Karlos A ez da ausartzen erraten zein den enpresa. Komikoa litzateke, hain tragikoa ez balitz.

–Orain ohartzen naiz nor zaren –Karlos B itxuraldatu da bat-batean. Bere boz beldurtua abandonatu du, bizkar konkortua tentetu du, sua ateratzen zaio begietatik. Karlos A zur eta lur gelditu da, beldurrak –ikara mota berri batek, ez hastapeneko mesfidantza hark eragindakoak– hartu du.

Garai hartan denen ahotan ibili zen Karlos A-ren zorigaitz misteriotsua, albistegietan aipatu zuten, egunkarietako azalak bete zituen, istorio paranormalei buruzko saioetan erreportajea

egin zuten... Ordurako, Karlos B-ri argia moztua zioten, eta etxegabetzeko agindua ere heldua zitzaion.

–Badakizu zer? Ez zenuen besterik merezi!

Karlos A portzelanazko egin da, zuri bezain geldirik. Ez da fededuna, mezara joaten bazen ere; ez du superstizioen kontuetan sinesten, eta kostatzen zaio sinestea sorginkeria baten biktima dela! Oraingoan fededun bihurtu nahi luke. Jainkoaren baitan sinetsi nahi luke, otoitz egin diezaion sorginkeria hori kentzeko. Lehenik barkamena eskatu beharko lioke mezara itxurakeriagatik joateagatik, atea izan arren. Jainkoaren baitan sinetsi nahi luke, baina lehenik sinesten du deabruaren baitan. Erotzen ari da. Ez zuen uste bere zorigaitzaz pozten zen batekin egonen zenik parez pare! Ikaratu da: Zertara etorri duk gizatxar hau? Zer jasan behar diat oraino?

Oraingoan, Karlos B-k hartu dio gaina Karlos A-ri, errepublikako presidente bat bezain lerdan agertu den Karlos A-ri. Presidentea bere ohean kiribildurik dago, dardarka, Karlos B deabrua azken ukaldia ematera etorri balitzaio bezala. Zakur zanpatuaren begitartearekin so egiten dio hurbiltzen zaion guztietan...

Karlos B-k, ordea, amultsuki prestatzen dizkio otorduak, arretaz zaintzen du supazterra, eta behar denean elikatzen, oiloak bazkatzen ditu, etxe aitzina garbi mantentzen du. Eta horrek berak ikaratzen du Karlos A. Ez ote du pozoituko?

–Denek uste genuen hila zinela...

Zenbait eguneko isiltasuna haustea erabaki du Karlos B-k. Karlos A desagertu zela jakin eta zenbait astera, talde anonimo batek agiri bat zabaldu zuen, eta hartan kontatu zuen egia.

–Badakizu, Karlos? Zurea ez zen sorginkeria bat izan. Zuri ebakuntza egin zizuna ez zen uste zenuen medikua. Isilpeko erakunde batek zure medikua bahitu zuen ebakuntza baino minutu batzuk lehenago, eta beste bat izan zen ebakuntza gelan sartu zena. Medikua bat zen hura ere, baina ez ospitalekoa. Eta han mikrotxip bat txertatu zizun. Txip hura da argindarrarekin dituzun gaitz guztien iturburua.

Etsaiak badituela... Hori bazekien. Bazekien, bai, bere bolizko dorre kaskotik aginduak ematen zituenean, diru kontuak gainbegiratzeko zituenean edo burtsarekin jostatzen zenean, jende xehearen negarren auhena belarrietara ez bazitzaion heltzen ere, min hori bazegoela. Ontsa kexu zen, ordea! Aise ahanzten zituen beste enpresaburuekin eta agintari politikoekin astean hirutan edo gehiagotan izaten zituen batzar, koktel, afari eta abarretan botatzen zituen irri gizenekin. Argindar konpainiako lehendakaria da... zen... da... ez daki gehiago... Norbaiti argia moztu ziotela? Eta zer? Legea alde zuen. Aski zituzten fakturak ordaintzea! Nahiz eta berak ez jakin zertan gasta metatzen zuen diru guztia...

–Zure erabakiarengatik moztu zidaten argia –jarraitu du Karlos B-k—. Sakelak ederki bete zenituen, xumeon bizkar...

Azken hitz horrekin agurtu du Karlos A. Eta joan da, bizia beste nonbait egitera.



\*

Karlos A-k bankuan duen diru kutxara euro bateko txanpona erori da, klank, eta bi segundoren buruan beste bat, klank... Badira bi urte euroak sartu eta sartu ari zaizkiola, klank, klank eta klank, eta bakar bat ere ezin izan duela atera kutxatik. Egongela oso bat dago txanponez kokorreraino beteta...

Bitartean, munduaren beste puntan, beste multinazional bateko enpresaburu bat dutxan sartu da. Ur beltza atera zaio, ikatza bezain beltza, azukrez betea, saltzen duen edariaren gisakoa...